

Asperkeria



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Euskal politikaren garai aspergarria bizitzen ari gara. Horra, lagun batek aurrekoan esan zidana. Burura etorri zitzaidan lehenengoa: “Ez zaio arrazoirik falta”. Aurrekontuen negoziazioa, kupoaren negoziazioa, autogobernu ponentzia, bake eta bizikidetzaren ponentzia, zerga erreforma... Horrelakoxeak dira lerro-buruak betetzen dituztenak. Inor gutxi berotuko duten kontuak. Asko jota, teknokrataren bat edo beste.

Lehenengo pentsamendu horren ostean, ordea, hausnarketarako beta eskaini zidan. Aipatutako guztiak EAEko kontuak ziren. “Euskal” kategoria gero eta gehiago mugatzen dugu horretara. Ez da operazio *sinekdoke* bat. Ez dugu zatia guztiaren partez ikusten. Zatia bakarrik ikusten dugu. Gauza bera esango al genuke Iparraldean aintzat hartuta? Euskal politika aspergarri al dago? Ez dut uste, une politiko aski interesgarria bizitzen ari baikara bertan. Gauza bera esango al genuke Nafarroa begietan edukita? Beste horrenbeste, ezezkoan nago berriro ere. UPNren Gobernua bi hamarkadaz pairatu ostean, gobernu aldaketak irekitzen dituen aukerak ez dira hutsaren hurrena. Biak ala biak dira urtetan landutako zoroaren uzta. Asimilazio kulturalak aurpegi asko ditu, horietako bat: herri ikuspegia galtzea.

Bestalde, zer ulertzen dugu politika gisa? Ez al da ba politika eskola-jantokietako emakumeen borroka eredu garria? Eta Errekaleor auzoko dinamika? Ez al da hori politika oinarri-oinarritik egitea? Alternatiben Herria? Erraustegiaren aurkako mugimendua? Zenbat ekarpen feminismotik? Beste hamaika adibide jar daitezke. Politika alderdi

Euskal Herrian beti izan dugu herri mugimendu eredugarri bat. Beti izan dugu eta badugu. Baina egurtutako txakur baten moduan gaude, belarriak behean eta buztana hankartean. Harrotasunetik gure burua etengabe gutxiestera pasa gara

politiko eta erakundearen kontua dela sinesten hasi gara, ez dago desmobilitaziorako bide eraginkorragorik.

Euskal Herrian beti izan dugu herri mugimendu eredugarri bat. Beti izan dugu eta badugu. Baina egurtutako txakur baten moduan gaude, belarriak behean eta buztana hankartean. Harrotasunetik gure burua etengabe gutxiestera pasa gara. Utzi adibide bat jartzen, nire uste apalean hori garbi islatzen duena. Hona beste lagun baten komentarioa: “Orain ere itzela egin dute kataluniarrek Bruselan 45.000 lagun bilduta, hori bai herritargo aktiboa eta ez gurea”. Miresmenez ikusi dugu independentziaren alde eta Europar Batasunari laguntza eskatzeko hainbeste jende mobilizatzea Europan barna. Erakustaldi berri bat. Ez da gutxiagorako ere. Alta, egun batzuk geroago bake artisauek deituta 11.000 lagun bildu ziren Parisen. Hor, ordea, ez nuen halako komentariorik entzun, herri baten eta bestearen tamaina aintzat hartuta antzeko lorpena den arren. Autoestimua zer den, bata izugarritzat jotzen dugu, besteari garrantzia kentzen diogu.

Nolanahi ere, gaur egun ez dago zertan mugitu eta antolatu, jendearen kezka ez baitira kalean islatzen, inkestek dioskute zeintzuk diren (modu ironikoa ON). Eitb Focus. Euskobarometroa. Soziometroa. Navarrometroa. Deustometroa. Droga gogorrak. Demoskoplarekin narkotizatzen gaituzte, galderan bertan gure kezka izan behar duena sartu eta gizartearen iritzi gisa aurkeztuta. Eroso bizi gara horrelakoak goizeko kafe eta pintxoarekin batera irensten. Erosoegi. Agian asumitzen hasi beharko gara aspergarria ez dela politika, aspergarriak gu gara. ■